

NAFARROAKO KULTUR KUDEAKETAKO II. KONGRESUA

Kultur sektorearen erronkak egungo testuinguruan: plangintza, publikoak eta profesionalak.

2011ko azaroaren 22a eta 23a

KONKLUSIOAK

1. Gaur egun egiten dena ordenatzeko eta zentzua eta koherentzia emateko beharrezkotzat ikusten dugu kulturaren plan estrategiko bat Nafarroarako. Eraginkortasunez zuzendutako Plan Estrategikoa denean eta kulturaren eragile ezberdinekin adostua dagoenean, kalitatezko integrazio eta kohesio soziala eta lan eta aberastasun sorrera bermatzen duen lanabes garrantzitsu bilaka daiteke kultura. Krisialdi garaian, are gehiago, planifikatu behar da baliabideak optimizatzeko, etorkizuneko erronkei erantzuteko eta talentu berritzailea sustatzeko eta horrek eragile guztien erantzukidetasuna behar du: politikariak, kudeatzaileak, sortzaileak, hezkuntza arloa, enpresaburuak eta herritarrak, oro har.

2. Kongresuak agerian utzi zuen kulturaren sustapenerako aurrekontuen diru hornidurak bermatzearen premia, Europako erreferentziazko herrialdeekin parekatzeko eta urtero kulturako partidek jasaten duten jaitsiera gelditzeko beharra. Halaber, nabarmendu zen egungo tokiko ogasun banaketa sistema dela-eta, udalek zerbitzuak eskaintzen dituztela, nahiz eta beharrezko baliabide ekonomikoak ez izan.

3. Ondasun kulturelek egokitzapen teknologikorako duten gaitasuna azpimarratu zen eta baita bere dimentsio ekonomikoa ere, BPGren %4. Kultura lana eta aberastasuna sortzeko sektore estrategikoa da, herrietako gune andeatuak onera dakartza, turismoa dinamizatzen du eta lurraldearen marka irudia ematen du.

4. Geure publikoak, geure ekintzaren funtsezko helburuak direnak, aniztunak eta aldakorrek dira eta aisia eta kultur proposamenen kontsumitzaile jakitunak. Kulturak lehiatu behar du eta publikoei egokitutako esperientziak eskaini eta horretarako ezagutu

behar ditugu eta elkarreragin. Publikoak ekintza kulturalaren fase guztietan egon behar du. Nahitaezkoa da tokikoa eta globala txertatzea gero eta digitalizatuagoa den gizarte batean eta proposamen erakargarriak eta egokituak egin geure Kultur guneetan.

5. Kultur kudeatzaileak, kultur politikak, sormena eta publikoen arteko profesional bitartekari den heinean, ezagutu behar ditu bere lanbideko instrumentuak eraginkortasunez eta efizientziaz lan egiteko, herritarren bizi kalitatea aberasten dituzten esperientziak eskaintzeko, baina, gisa berean, lanbidearen aitormen instituzionala ere behar du, kulturak geure erakundeentzat duen garrantzia eta, oro har, gizartearentzat duena bat baitatuz.

6. Kongresura bertaratutakoek aho batez berretsi zuten ***Kulturaren aldeko Ituna*** eta horri atxiki ziren. Itun hau Madrilan 2010eko abenduaren 17an onartua izan zen Espainiako kulturako sektore profesional eta enpresarialen Batzarrean, herri administrazioei egindako aldarrikapen gisa: krisialdi eta baliabide eskasien garai hauetan kalitatezko kultur zerbitzu publikoak bermatzeko eta interes kulturalako ekintza pribatuen ekimenak sustatzeko; euren gaitasun kreatibo, kritiko eta sinbolikoa dela-eta, garapen pertsonal eta sozialean, berrikuntzan eta bestelako sektore produktiboetan eragin aktiboa izan baitezakete.

7. Azkenik, Kultur Kudeaketak eta bere profesionalek aurrera begira dituzten **erronkak** paratu ziren agerian Kongresuan:

-***Berrikuntza*** (proposamen, ekimen, produktu eta zerbitzu berriak; talentu globala).

- ***Espezializazioa*** (tokiko indarguneak nabarmendu, mimetismoa saihestuz)

-***Nazioartekotzea*** (globalean pentsatu eta tokikoan jardun)

-***Digitalizazioa*** (irisgarritasuna eta iraunkortasuna, zerbitzu plataformak, inbertsio publikoa, sareari irekitako kultura).

-Hezkuntza (heziketa eta prestakuntza artistikoaren eginkizuna kultur egintzaren atzematean).

-Prestakuntza (Unibertsitateko ikasketa espezifikokoak eta kudeatzaileen etengabeko prestakuntza).

-Herritarrak (eskaria pizteko politikak, publikoen azterketa, sare sozialak).

-Parte-hartzea (herritarren inplikazioa eta partaidetza kultur politiketan).

-Erantzukidetasuna (lurraldeko erakunde nagusien artean).

-Lidergoa (lidergo partekatuak eta ekintzaileak).

-Ebaluazio adierazleak (kultur ekintza eta programazioen eraginkortasuna, efizientzia, eragina eta zuzentasuna neurtzen duten adierazleen sistema).

-Itunak (lurraldeko erakunde eta eragileen arteko elkarlan publiko-pribatua, elkarlana sektore pribatua + hirugarren sektorea = gizarte zibila).

-Aztertu (ekintza eta zerbitzu eskaintzaren estandarrak eta katalogoa).

-Erreformatu (efizientzietarako pizgarriak, baliabideak optimizatu, eredu publikoaren azterketa).

-Ezinbestekora itzuli (programak eta zerbitzuak lehenetsi).

-Finantziarioa (gastuaren kalitatea hobetu, Mezenasgo Lege berria sustatu).

-Kulturaren funtzio soziala aitortu (gizarte batean kultur aniztasuna eta kalitatezko kohesio soziala bermatzen du kulturak; honen funtzio sozialaren errekonozimenduaren itun baten premia).

-Kultur aniztasuna (ikuspegi estrategiko batetik zein operatibo batetik kultur esku-hartze prozesuetan egungo gizartearen elementu definitzailea dena; gehienetan asmo deklarazio batean geratzen da).

- **Kultur kudeatzaile profesionalak** (kulturaren ikuspegi ezberdinak jorratzeko gai izatea; bi dimentsiotan: alde batetik, kultur politiken artikulazioa lurraldean eta bestaldetik garapen ekonomi osoan ekarpena egitea).
- **Lanbidearen benetako definizioa** (kohesioa gizartean: sektorerako profil zehatza definitzen duen gizartea, curriculum estandarizatua duen unibertsitatea eta espezialistak eskatzen dituzten enpresak)
- **Kode deontologikoa** (profesionalizazio prozesuan laguntzen duten jardunbide egokiak).